

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

Gure zerbitzuak, bi pertsona xede ditu. Lehenengoa, euskal herri mailan dauden denda txikien jabeak. Bereziki, errenta ertainak dituzten pertsonen auzotan kokatuta dauden dendak izango dira, hirien alde zaharrear edo erdigunetik kanpoko auzoetan kokatuta daudenak. Beraien negozioek bultzada bat behar dutela pentsatzen duten merkatariak sartuko dira gure sarean.

Bigarrena, euskal herriko helduak dira (18-90 urteen artean), haiek soldata bat irabazten dutelako eta diru horrekin denda txikiko produktuak erosi ahal dituztelako. Hain zuzen ere, ekonomikoki diru sarrera ertainak dituzten helduak dira. Izan ere, irabaz txikiak dituzten pertsona askorentzat zailagoa da auzoko dendetan erostea, frankiziak baino pixkat garestiagoak direlako. Gainera, ekonomikoki irabaz handiak lortzen dituzten pertsonak ez dago zuzenduta, haiek orokorrean luxuzko dendetan erosten dutelako. Tokiko ekonomiarekin, bertako produktuekin eta iraunkortasunarekin sentsibilizatutako pertsonak izango dira.

Azkenik, aipatzekoa da gure aplikazioak eskeintzen duela rutak egiteko zerbitzua. Aplikazioak, zure beharretara eta nahietara egokitzen da eta tabernen rutak edo dendek rutak sortzen dizkizu. Horregatik, lekuak ezagutzea gustatzen zaion pertsonak zuzenduta dago ere.